


EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: 2016ko MARTXOAK 8ko ERAKUNDE

ADIERAZPENA

	OÑATIKO UDALA	
	Erregistro Data	
2016 OTS 23		
SARRERA	IRTEERA	
352		

Nazioarteko Egunak aldarri egunak dira, egoera desorekatuak agerian utzi eta eman beharreko aldaketen aldarri eta borroka egunak.

Martxoak 8a, emakume langileen borroka testuinguruan kokatzen da, 1908. urtean oihalgintzan prekarioki eta inbisibilizatuki lanean ari ziren emakume langileek grebari eutsi eta EEBBetako hainbat hiritan manifestaldiak burutu zituztenean.

Handik hona, emakume-gizon eta borroka feministari esker, asko izan dira emandako urratsak emakume eta gizonen berdintasunaren alde, baina ezin da ahaztu, gaurko egunean zoritxarrez, leku ugarian badela eman beharreko pausurik emakumeen eskubide oinarritzkoenak eskuratzeko bidean.

Euskal Herrian bertan, lege eta araudiek berdintasunaren aldeko marko orokorra ezarria badute ere, badugu eman beharreko urrats ugari. Izan ere, berdintasun faltsuaren diskurtsoa hedatzen dihardu, eta honek, berdintasunaren alde aktibatu beharreko neurriak moteldu besterik ez ditu egiten, egoera irreal bat irudikatuz.

Finantza krisiak eragindako murrizketek lehenik, eta ustez bertatik ateratzeko hartutako hainbat neurri ondoren, azken urteotako jazarpen bortitzena eragin dute jendarteren eskubide oinarritzkoenen galera orokorrean, eta bereziki emakumeen eskubideengan. Eta horrela, diskurtso eta praktiken arteko kontraesanak agerikoak ari dira izaten, parekidetasunaren, ekitatearen eta berdintasunaren esparruan.

EHBildutik argi dugu egunerokoa eta guztion lana dela berdintasun erreala lortzeko lanari eustea, erakundeetan eta jendartean, lana eta enplegua baldintza duinetan banatua izan dadin, zaintza lanak partekatuak izan daitezten, afektibitatea eta sexualitatea modu anitzean, libreki eta seguru bizi ahal izan dadin, estereotipoak zein rola gaindituak izan daitezten, eraso sexual eta sexistak desagertu daitezten, prekaritateak eta pobrezia emakume izena eduki ez dezaten, erabakiguneetan aritzeko aukera berak sor daitezten, etab.

Eta hau guztia lortzeko, jendarte eredu berritua eraikitzeko, neurri normatibo, tekniko eta ekonomiko ausartak hartu behar dira, egungo murrizketak alboratuz.

Horregatik, 2016ko martxoak 8 honetan, Oñatin ere badelako zer eginik, ondorengo ebazpen proposamena egiten dugu, Oñatiko osoko udal batzak onartu dezan.

EBAZPEN PROPOSAMENA

- 1.- Oñati udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du berdintasun aurrekontua igotzeko urtero, 2017tik 2019ko aurrekontu partida orokorretan.
- 2.- Oñati udalerriko Osoko Bilkurak, berdintasun teknikariaren figura indartzeko konpromisoa hartzen du.
- 3.- Oñati udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du Ahalduntze Eskola abian jartzeko herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.
- 4.- Oñati udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko emakumeen errealitatea ikertu eta ezagutarazteko ikerketa beka abian jartzeko.
- 5.- Oñati udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du sortzen dituen idazki guztietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboa erabiltzeko.
- 6.- Oñati udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du diru-laguntzetan genero klausulak ezartzeko.
- 7.- Oñati udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du Biolentzia Matxistaren kontrako protokoloa landu eta abian jartzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.
- 8.- Oñati udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko jai eta ospakizunetan parte hartze parekidea landu eta sustatzeko, herriko taldeekin elkarlanean.
- 9.- Oñati udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du udal eskumeneko sail guztietan generoa zehar lerrotasunez lantzeko, horretarako neurri batera bat aurkeztuko duelarik legegintzaldian zehar garatzeko.
- 10 Oñati udalerriko Osoko Bilkurak, dei egiten du emakume eta talde feministek deitutako mobilizazioetan parte hartzeko.

Oñatin, 2016ko otsailaren 25ean.

